

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Salmenta gune nagusia edo garrantzitsuena, sortuko dugun webgunea izango da, baina; horrez gain, beste hainbat tokitan ere egongo gara aurkigarri, izan ere, produktua informatika denda ezberdinetan salgai jartzea da gure helburu. Noski, saltzeaz gain, bezeroekin harremanetan jartzeko lekuak izango dira, gure gmail eta telefono zenbakiarekin batera.

Erosle arruntek guganako konfiantza izan dezaten, deskontuak lortzeko aukerak emango dizkiegu erosketaren tamainaren arabera. Hornitzaileekin; ordea, bilerak egingo ditugu aurpegiz-aurpegi, gertutasun bat azaltzeko asmoz. Era berean, publizitate-kanpainak egingo ditugu, eta



produktuaren funtzionamendua eta abantailak kontatzeko agerraldi edo erakusketak antolatuko ditugu. Bestalde, lan egiten dugun lokalera etortzeko aukera emango diegu, beti ere webgunean argitaratuko dugun ordutegia errespetatuz.

Gure logoan Euskal Herriko enpresa bat garelako argi utzi izanak, euskara gurekin harremanetan jartzeko hizkuntza nagusia izango dela ondorioztatzen laguntzen du. Hala ere, mundu mailara iristeko helburua dugunez, erdara ere izango dugu komunikabide, zehazki, gaztelera, ingelera eta frantsesa.

Web orria ahalik eta eguneratuen izaten ahaleginduko gara, azkeneko berrikuntzak ezagutzera emanez. Gainera iritzi gune bat jarriko dugu eskuragarri webgunean, bezeroen artean esperientziak kontatzeko eta laguntzeko. Hori izango da gure erakartzeko modua, bezero berriak webgunean irakurri ditzakete besteen esperientziak.

Argi utzi nahi diegu bezeroei, gure lanean gogor arituko garela eta dituzten zalantza guztiak argitzeko gaudela, haiekin nahi dugun harremana gertutasunezkoa eta konfiantzazkoa da. Haiek dira gure motorra.

Euskal Herriko Enpresa

